

15/21

irizpena

Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren
dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2021eko abenduaren 17a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 15/21

I.- AURREKARIAK

2021eko azaroaren 30ean, Ekonomiaren Garapenerako eta Iraunkortasuna eta Ingurumena Zaintzeko Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren Dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretuaren xedea da itsas arrantzako, itsaski-bilketako eta akuikulturako jarduera kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizunak arautzea, EAeko Administrazio Orokorraren eskumenen esparruan.

Helburua da itsas arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren arloko araudia betetzen dela bermatzea, eta itsas baliabideak babesteko beharrezkoak diren jarduketa guztiak aurreikustea eta egitea fase guztietan, harrapaketatik edo ekoizpenetik merkaturatzeko azken fasera arte.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamen eta iritzia bidal zitzaizkien eta Lan Batzordeari helaraz ziezazkioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera. 2021eko abenduaren 14an, Garapen Ekonomikorako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Batzordearen abenduaren 17ko Osoko Bilkurari helarazteko, eta aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

Dekretuak azalpen-zati bat (12 artikulua), xedapen indargabetzaile bat eta 2 azken xedapen ditu.

Zioen azalpenean adierazten denez, martxoaren 29ko 67/1982 Dekretuak, Arrantza, Maskulu bilketa eta Akuikultura-landareen ikuskapen-zerbitzua antolatzen duenak, ikuskapen-zerbitzu bat sortu eta arautu zuen. Zerbitzu horrek gaur egun funtzionatzen du, baina egungo lege-aurreikuspenetara egokitu behar da.

Xedapenak

1. artikulua. Helburua
2. artikulua. Itsas arrantza, itsaski bilketa eta akuikulturako ikuskaritza zerbitzuko langileak
3. artikulua. Ikuskatzeko eginkizuna betetzeko gaitzea
4. artikulua. Trebakuntza
5. artikulua. Ikuskatze-funtzioaren jarduera-eremua
6. artikulua. Ikuskapen zerbitzuetako langileen ahalmenak
7. artikulua. Ikuskapen zerbitzuetako langileen betebeharrak
8. artikulua. Ikuskapen-txostena

9. artikulua. Arau-hausteetarako prozedura

10. artikulua. Behin behineko neurriak

11. artikulua. Arrantza ikuskatzeko planak

12. artikulua. Elkarlanean aritzeko betebeharra

Xedapen indargabetzailea, martxoaren 29ko 67/1982 Dekretua, Arrantza, Itsaski eta Akuikultura Landareen Ikuskaritza Zerbitzua Antolatzekoa, indargabetzen duena.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Gauzatzeko eta garatzeko ahalmenak.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Europako Erkidegoko arrantza-politikaren helburu orokorra da uretako baliabide bizien ustiapenak ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-baldintza iraunkorrak erraztea lortzea.

Batzordearen 1992ko abenduaren 20ko 3760/92 (EEE) Erregelamenduak (“Arrantzarako¹ MAE”), arrantza-sektore osoari aplikatzeko kontrol-sistema komunitario bat ezartzeko betebeharra aurreikusten du.

Aurreikuspen hori garatzeko, Batzordearen 2009ko azaroaren 20ko 1224/2009 (EE) Erregelamenduak arrantza-politika bateratuaren aplikazio-eremuan sartzen diren jarduerak kontrolatzeko betebeharra ezartzen die estatu kideei. Bereziki, honako hauek kontrolatu behar dituzte: arrantza-jarduerak, ontzi-aldaketak, arrainak kaiolatara edo akuikultura-instalazioetara eramatea (gizentzea barne), lehorreratzeak, inportazioak, garraioak, eraldaketa, merkaturatzea eta arrantzako eta akuikulturako produktuak biltegiatzea.

Bestalde, 2017ko apirilaren 7an, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 (EB) Erregelamendua argitaratu zen. Erregelamendu horrek arauak ezartzen ditu estatu kideetako agintaritza eskudunek kontrolak egiteari buruz, elikagaien eta elikagaien segurtasunaren arloko arauak eta elikagaien ekoizpen, eraldaketa eta banaketaren edozein fasetako osotasun eta osasungarritasuna (arrantzako eta akuikulturako produktuak barne) betetzen direla egiaztatzeko.

Horrek esan nahi du arrantza-agintariek neurri egokiak hartu behar dituztela, beharrezkoak diren finantza-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak esleitu behar dituztela, eta arrantza-politika bateratuaren eta elikagaien segurtasunaren aplikazio-eremuan sartzen diren jardueren kontrola, ikuskapena eta betetzea bermatzeko beharrezkoak diren egitura administratibo eta teknikoak sortu behar dituztela; era berean, beren agintari eskudunei eta agenteei beren eginkizunak betetzeko bitarteko egoki guztiak eman behar dizkiete.

Aipatu dugun bezala, helburu horri jarraiki, martxoaren 29ko 67/1982 Dekretuak, Arrantza, Maskulu bilketa eta Akuikultura-landareen ikuskapen-zerbitzua antolatzen duenak, ikuskapen-zerbitzu bat sortu eta arautu zuen. Zerbitzu hori egungo lege-aurreikuspenetara egokitu behar da.

¹ *Merkatu Antolakunde Erkidea*

Hori guztia kontuan hartuta, eta dekretu-proiektua egiteko memoria eta edukia aztertuta, Batzorde honek uste du araua egokia dela.

IV.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen iritziz, egokia da Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren dekretu-proiektua izapidetzea, kontsulta-organo honek egindako oharrek kontuan hartuta.

Bilbon, 2021eko abenduaren 17a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Lorea Soldevilla Palazuelos